

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

ETXAGUE JENERALA 3



Egile eta data ezezagunak
(Ez dago espedienterik Udal Artxiboan)

Deskribapena.

Mehelin arteko eraikina, behe oina, lau goi oin eta bi jasodura atzeraeman dituena. Harlanduzko fatxada behe oinean eta gainerakoa zeramikazko lauzekin xaflatuta. Zurezko begiratokia erdiko baoan. Hormigoizko apaingarriak dituzten ateburuak.

Babes erregimena.

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemanak (5. eta 6. goi oinak).
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; hormigoizko elementu moldekatuak; begiratokiak.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
 - * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
 - * Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak.